http://eraikal.blog.euskadi.eus/blog/2012/04/23/espainiako-higiezinen-merkatuaren-urtekari-estatistikoa-2011-2012-rr-de-acuna-asociados-enpresarena/

Espainiako Higiezinen Merkatuaren Urtekari Estatistikoaren hamaseigarren edizioa da hau. Urtekari hau higiezinen sektore zabalarekin erlazionatutako enpresa eta profesional guztiei zuzentzen zaie, eta lan-tresnatzat aurkezten da, Espainia osoko higiezinen sektorearen datu ekonomikoei buruzko ideia orokor batzuk izateko.

Argitalpen honen eduki estatistikoaren sarrera moduan, higiezinen merkatuaren egoerari eta etorkizunari buruzko txosten bat aurkezten zaio irakurleari, eta jarraian, Espainiako 52 probintzia-hiriburuei buruzko datu eguneratuak, 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerri guztietako etxebizitzen prezioak eta biztanleriari buruzko datuak ere bai. Autonomia-erkidegoko eta nazioko datuak ere lantzen dira. Datu horiek fitxa batean jasotzen dira, udalerrien edo autonomia-erkidegoen arabera.

Txostena **RR de Acuña & Asociados** enpresaren webgunean eros daiteke. Txosteneko datuak jasotzen dituen **prentsa-ohar bat** ere bada eskuragarri.

Eraikalen, urtekariaren aurreko edizioa jaso zen: **Espainiako higiezinen merkatuaren 2010eko urtekari estatistikoa**

Bizkaiko eraikuntza- eta sustapen-sektoreari buruzko Ascobi 2011 txostena berrian, Ascobiren txostenaz gain, merkatuak 2012an Europan zein Espainian izan duen bilakaerari buruzko zenbait txosten jaso dira, hala nola: **Europako higiezinen merkatuari buruzko 2012ko joera-txostena** eta **CB Richard Ellis. Tendencias 2012. Hirigintzako txostena**.